BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5823

276/2012 DEKRETUA, abenduaren 11koa, Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kide batzuk kargutik kentzeko eta beste batzuk izendatzeko dena.

Apirilaren 20ko 3/2007 Legearen bidez, Etxepare Euskal Institutua sortu eta arautu zen, honako helburu honekin: euskara eta euskal kultura Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzea, hedatzea eta proiektatzea, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan.

Etxepare Euskal Institutua nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasuna du eta kultura arloan eskuduna den Jaurlaritzako sailari atxikita dago. Honako hauek dira institutuaren organo artezkariak: Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta zuzendaria.

Etxepare Euskal Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuak ezartzen du, halaber, kide anitzeko bi organok (Patronatua eta Zuzendaritza Kontseilua) eta kide bakarreko batek (zuzendaria) osatuko dutela institutua.

Dekretu horretako 14.c) artikuluak honako hau ezartzen du: «Jaurlaritzaren Kontseiluak lau urterako (behin bakarrik luza daiteke epea) izendatutako bi kontseilari, Patronatuaren ordezkari legetxe eta berak proposatuta».

Lau urteko epea igarota, Institutuko Patronatuak bilera egin zuen abenduaren 4an, eta proposamena egin zion Jaurlaritzaren Kontseiluari, Eva María Salaberria Artano eta Koldo Tapia Garmendia Zuzendaritza Kontseiluko kide izateko, Patronatua ordezkatuz.

Horiek horrela, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Etxepare Euskal Institutua sortu eta arautu zuen apirilaren 20ko 3/2007 Legeko 6., 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoaren arabera –zeinetan Patronatuaren eta Zuzendaritza Kontseiluaren osaera arautzen baita–, Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abenduaren 11n egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kontseilari-kargutik kentzea honako hauek:

– Filgi Claverie Michelena jauna.

– Jose Luis Lizundia Askondo jauna.

2. artikulua.– Honako hauek izendatzea Etxepare Euskal Institutuaren Zuzendaritza Kontseiluko kontseilari, Patronatuaren ordezkari modura eta berorrek proposatuta:

– Eva María Salaberria Artano andrea.

– Koldo Tapia Garmendia jauna.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko abenduaren 11n.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.